

# La plataforma 8M organiza actos desde hoy hasta el lunes

Talleres, charlas y demás actividades concluirán el lunes con una manifestación que partirá de la plaza Cardenal Orbe a las 19 horas

## A. LASUEN

ERMUA. La Plataforma del 8M de Ermua ha organizado para los próximos días varias actividades con motivo de la conmemoración del Día Internacional de la Mujer.

La programación comenzará hoy con un taller, dirigido a mujeres, titulado 'Privilegios blancos y prácticas racistas en espacios feministas', con Tfarrah Mohamed Yeslem. Las mujeres que deseen participar en este taller,

que se desarrollará de 17.45 a 20.00 horas, podrán inscribirse en las mesas informativas que se instalarán en las calles céntricas de la villa o en 'm8ermua@gmail.com'.

Mañana sábado, a partir de las 11.00 horas, se organizará una mesa redonda, bajo el título 'Sin cuidados no hay vida'. Será una actividad dirigida a toda la población, con aforo limitado.

En Lobiano, para hablar sobre los cuidados, se reunirán la representante de las familias de Abeletxe María Jesús Beitia; la delegada sindical de la Residencia de Abeletxe, Nekane Olalde; la representante de la organización por la igualdad y la defensa de los derechos humanos de las mujeres migrantes 'Malen Etxea', Silvia Carrizo, y las participantes en el proyecto de investigación, formación y acción feminista Amaia Pérez Orozco y Silvia Piris Lekuona.

Posteriormente, mañana, a partir de las 13.00 horas, en la plaza 8 de Marzo se desarrollará un acto reivindicativo por el derecho colectivo al cuidado, al que se llama a toda la población.

Para concluir con las actividades organizadas para mañana, a las 17.00 horas, en la plaza se desarrollará un acto titulado 'las redes de mujeres jóvenes agrietan el sistema'.

El próximo lunes, Día Internacional de la Mujer, esta plataforma ha programado una manifestación, dirigida a toda la población, bajo el lema 'Gora borroka feminista, antikapitalista eta antiarrazista', a partir de las 19.00 horas, que partirá de la plaza Cardenal Orbe.



La obra '¿Qué fue de Ana García?' habla sobre las violencias que se generan contra lo diferente. E. C.

# Teatro y cuentacuentos este fin de semana en Ermua

La obra '¿Qué fue de Ana García?' se ofrecerá hoy (19.00 h.) en el Antzokia y el cuentacuentos, en inglés, mañana (17.30 h.) en Lobiano Kultur Gunea

## AINHUA LASUEN

ERMUA. Durante este fin de semana la oferta cultural de Ermua contará con teatro y una nueva sesión de cuentacuentos.

La Compañía Joven del Pabellón 6 de Bilbao pone en escena hoy en el Ermua Antzokia la obra '¿Qué fue de Ana García?', a partir de las 19.00 horas, un montaje que aborda las violencias contra lo diferente y el respeto hacia la diversidad. Se trata de una propuesta integrada en el programa municipal de actividades del 8M.

Las entradas están a la venta,

por 10 euros, en Lobiano Kultur Gunea y en la web de Kutxabank.

La obra es una adaptación de un texto de Javier Liñera y dirigida por Borja Ruiz. En el montaje participan los intérpretes Ainhoa Aretxe, Aitor Vildosola, Aritz Mendiola, Graciela Doniz, Itxaso Gil, Jontxu Martínez, Leire Ormazabal, Nagore Cenizo-Arroyo y Pelayo Serrano.

'¿Qué fue de Ana García?' es una historia que un grupo de jóvenes artistas cuenta sobre las violencias que se generan contra lo diferente, contra los cuerpos raros. Y lo hacen en el teatro, un espacio que les permite subvertir las reglas de un mundo que heredan y al cual interpelan desde su voz, su canto y su cuerpo.

En el escenario del Ermua Antzokia, se contará la historia de un grupo de actrices y actores que conoce a Ana García, una chica de Bilbao que pasaba sus ver-

nos en un pueblo de Castellón. La investigación sirve como disparadero para poder hablar de la violencia que se ejerce sobre los cuerpos «inútiles», esos raros cuerpos que son mujeres, niños, niñas, trans, y un largo etcétera.

## Cuentacuentos

Por otra parte, mañana los más pequeños del municipio contarán con una nueva sesión de cuentacuentos, en inglés. La narración lleva por título 'Two of everything' y está dirigida a la población infantil de entre 5 y 9 años. La contadora británica Hannah Berry se encargará de dinamizar la sesión.

El cuentacuentos comenzará a las 17.30 horas en Lobiano. La entrada es gratuita, pero será necesario reservar plaza con antelación en la biblioteca, llamando al teléfono 943 179 212.



Planto feminista en 2019. A. L.

## TELÉFONOS DE INTERÉS

<b>URGENCIAS</b>	
SOS DEIAK	112
DYA	943 464 622
<b>HOSPITALES</b>	
Hospital Mendaro	943 032 800
Ambulatorio de Eibar	943 032 500
Ambulatorio de Eibar (Torrekua)	943 032 650
Ambulatorio de Ermua	943 032 630
<b>POLICÍA MUNICIPAL</b>	
Eibar	943 708 424
Ermua	943 176 300
<b>ERTZAINZA</b>	
Eibar	943 531 700
<b>BOMBEROS</b> Toda la provincia	
	112
<b>TRANSPORTES</b>	
Euskotren	902 543 210
Pesa Eibar	902 101 210
Bizkaibus	902 222 265
<b>TAXIS</b>	
Eibar	943 203 071 y 943 201 325
Ermua	943 170 396
<b>AYUNTAMIENTOS</b>	
Eibar (Centralita)	943 708 400
Eibar (Oficina de información a la Ciudadanía. Pegora)	010
Ermua	943 176 322

\* EL CORREO no se hace responsable de cambios de última hora

## CARTELERA DE CINE

### EIBAR

**COLISEO** Merkatu Kalea, 2

No hay función

### ERMUA

**ERMUA ANTZOKIA** Iparragirre, s/n

No hay función

## COMUNICACIONES

### AUTOBUSES

#### EIBAR-SAN SEBASTIÁN

Laborables: 6.10\*, 6.40\*, 7.10\*, 7.40, 8.10, 8.45\*, 9.15\*, de 10.10 a 21.10 cada hora, 13.05\*, 18.10\*, 19.10\*.  
Sábados: 6.40\*, 7.10\*, 8.10, 8.45\*, 9.15\*, de 10.10 a 17.10 cada hora, 13.15\*, 15.10\*, 16.10\*, 18.10\*, 19.10\*, 20.10\*, 21.30, 23.10.  
Festivos: 8.10, 10.10\*, 12.10, 13.10, 15.10\*, 17.10, 18.10, 19.10\* y 21.45\*.  
\*Salida desde Ermua diez minutos antes

#### SAN SEBASTIÁN-EIBAR

Laborables: 6.50, 7.20\*, 7.50\*, de 8.20 a 14.20 cada hora, 11.20\*, 14.30\*, 14.50\*, 15.20\*, 16.20\*, 17.20, de 18.20\* a 22.20\* cada hora.  
Sábados: 6.50, 7.20\*, 7.50\*, de 8.20 a 21.20\* cada hora, 11.20\*, 14.20\*, 16.20\*, 17.20\*, 18.20\*, 19.20\*, 22.35\* y 00.20.

Domingos y festivos: de 9.20\*, 11.20\*, 13.20, 14.20\*, 16.20\*, de 18.20\* a 20.20\* cada hora, y 22.20\*.  
\*Llegada a Ermua

#### EIBAR-BILBAO (Autopista)

De lunes a sábado: Desde las 6.40 hasta las 20.40 cada hora. Domingos y festivos: Desde las 7.40 hasta las 21.40 cada hora.

#### BILBAO-EIBAR (Autopista)

Laborables: De 6.40 a 21.40 cada media hora. Sábados-festivos: 7.40 a 21.40 cada media hora.

#### EIBAR-VITORIA

Laborables: 6.25, 6.40, 6.55 y de 7.30 a 21.30 cada hora.  
Festivos: De 6.30 a 23.30 cada hora.

#### VITORIA-EIBAR

Laborables: 6.15, 7.00, 7.15, 7.45 y de 8.15 22.15 cada hora.  
Festivos: De 6.15 a 22.15 cada hora

#### EIBAR-PAMPLONA

Laborables y festivos: 8.30

#### PAMPLONA-EIBAR

Laborables y festivos: 11.00.

#### EIBAR-ARRATE

Laborables: 15.00.  
Sábados: 14.00  
Festivos: 9.00, 10.00, 11.00, 12.00 y 13.00.

#### ARRATE-EIBAR

Laborables: 15.30.  
Sábados: 14.30  
Festivos: 9.30, 10.30, 11.30, 12.30 y 13.30.

#### EIBAR-ELGETA

Laborables: 6.30, 8.30, 11.00, 13.30, 15.30, 16.30, 18.30 y 20.30  
Festivos: 8.30, 11.30, 13.30, 15.30 y 20.30.

#### ELGETA-EIBAR

Laborables: 6.50, 8.50, 11.20, 13.50, 15.50, 16.50, 18.50 y 20.50  
Festivos: 8.50, 11.50, 13.50, 15.50 y 20.50.

#### EIBAR-HOSPITAL MENDARO

Lunes a viernes: 6.20, 7.05 (de 7.05 a 22.35 cada media hora).  
Sábados: De 7.00 a 21.00 cada hora.  
Domingos: de 8.00 a 21.00 cada hora.

#### HOSPITAL MENDARO-EIBAR

Laborables: De 6.45 a 21.15 cada media hora. Sábados y festivos: De 7.45 a 20.45 cada hora.

## TRENES

#### BILBAO-EIBAR

Laborables: 5.57. Diario: (De 6.57 a 20.57 cada hora), 9.34 y 20.34.  
Sábado noche: 23.50, 1.50, 3.50 y 5.50.

#### EIBAR-BILBAO

Laborables: 6.13, 7.13. Diario: (De 8.13 a 22.13 cada hora), 10.36 y 21.36. Noches: 2.05, 4.05, 6.05 y 7.29.

#### ERMUA-BILBAO

Laborables: 6.19 y 7.19. Diario: De 8.19 a 21.19 cada hora.

#### SAN SEBASTIÁN-EIBAR

Laborables: 5.47, 6.47. Diario: De 7.47 a 20.47, cada hora, 9.20 y 20.20.

#### EIBAR-SAN SEBASTIÁN

Laborables: 6.13 y 7.13. Diario: De 8.13 a 22.13 cada hora, 10.35 y 21.35.

## FARMACIAS

#### EIBAR

De 9.00 a 22.00: Barandela (Ziriako Agirre, 4).

#### ERMUA

De 9.00 a 22.00: Ugarte (Goinkalea, s/n).

#### EIBAR-ERMUA

Noche. De 22.00 a 9.00: Izpizua (Ibarkurutze kalea, 7. Eibar).

DEBA



Zalburdi Debasket lehiaketarekin jarraituko du datorren astean. Perosanz Debasket ez du lehiatuko baina jokalarri batzuk hirugarren mailan ariduko dira. SALEGI

## Debasketek ez dio lehiaketari uko egiten talde guztiekin ez bada ere

Datorren astean hasiera emango zaio berriz ere lehiaketari

ANDER SALEGI

DEBA. Pasa den astean, Gipuzkoako Saskibaloia Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak bilera bat egin zuen saskibaloiko denboraldiarekin zer egin erabakitzeko, eta honako puntu hauek onartu ziren: Alde batetik, martxoaren 13tik aurrera lehiaketei berrekitzea, parametro hauen arabera: lehiaketa-sistema berriak jakinaraziko dira, egungo egoera kontuan hartuta, eta lehiaketari berrekitetari buruz egindako kontsultari baiezko erantzuna eman dioten taldeak kontuan hartuta. Kontsultari erantzun ez dioten taldeen kasuan, jokatzeko jarraitzeko prest eta bokazioarekin daudela ulertuko da.

Lehiaketaren baldintzak ikusita, talderen batek kontsultaren erantzuna aldatu nahi badu, posta elektronikoz jakinarazi beharko du. Kategoria bakoitza 15 egun behin hasiko da lehiatzen, eta hasierako asmoa ligak ekainean amaitzea da, junior errendimendua izan ezik, euskal fede-

razioak euskal ligarako sailkatzen diren taldeak eskatzen dituen datoren zain egongo bailitzateke. Lehiaketa oro pandemiaren bilakaeraren eta osasun-protokoloak betetzearen mende egongo da, jakina, EJK ezartzen dituen murrizketak ere kontuan hartuta.

Bestetik, 20/21 kirol-denboraldia baliogabetzat jotzea. Horrek honako hau dakar: Ez da jaitzierarik edo goerarik izango Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak antolatutako ezein lehiaketatan, eta, beraz, parte hartzen duten talde guztiek eutsi egingo diete denboraldi honetan parte hartu duten ligei, 21/22 kanpainari begira. Federazio honek antolatutako edozein ligatan edo goragokoetan talderen bat hutsik geratzen bada, 20/21 denboraldi honetan beheragoko hurrengo kategorian jokatu den azken jardunaldiaren ondoren hobekien sailkatutako taldeari emango zaio lehentasuna.

Azkenik kadete kategoriari buruz hitz egin zuten bilera horretan, Eusko Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin lanean ari dira egoera desblokeatzeko eta kategorian horietako taldeek lehiaketa-

tari lehenbailehen heltzeko bidea zein den argitzeko.

### Debasket

Erabaki eta oinarria hauek jakinda, Debasket, Debako Saskibaloia taldeak aurrera jarraituko du lehiaketan, baina ez talde guztiekin. Bozketa bate gin zen klubean eta honako hau onartu zen. Electricidad Perosanz Debasket, lehen mailako taldeak ez du jolastuko, jokalarri gehienak lanean dabilta eta konfinamendu batek ekarri dezaken arriskuengatik ez dute lehiatuko. Zalburdi Debasket, hirugarren mailako taldeak, aurrera jarraituko du lehiaketan, lehen mailako jokalarren bat eta hirugarren mailako beste batzuk osatuko dute ekipoa. Bi maila nahastuta jokatu dutenez mailaz igotzeko promozioari uko egiten diote. Gora Behera junior mailako taldeak baita ere aurrera jarraituko du lehiaketarekin. Kadeteak, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak hartutako erabakiaren zain daude berriz jolasten has-teko. Beste alde batetik, saskibaloia eskola eta infantilak oraingoz ez dute lehiatzeko informaziorik jaso eta entrenamenduekin jarraitzen dute.



ANDER SALEGI

## Outlet herriko komertzioetan

Atzotik eta bihar arte Debalai herriko zenbait dendetan outlet bat antolatu du. Deskontuak aurki daitezke denda mota desberdinetan (Azoka mertzeria, Mugan jantzidenda, Lamariano oinetakoak, Kaixo jantzidenda, Uzuri optika, Bohem jantzidenda, Estilo Deba eta Maitane Boutique jantzidenda). Bakoitzak bere denda egingo du outlet-a segurtasun neurriak mantenduz.

ONDARROA

## Ondarroa aspira a lograr ayudas para acciones de sostenibilidad energética

ALBERTO ECHALUCE

ONDARROA. La localidad ondarresa aspira a acceder al programa del Gobierno Vasco que pondrá a disposición de los ayuntamientos un programa dotado de 100 millones de euros dedicado a ejecutar actuaciones y planes en materia energética con los que avanzar en el cumplimiento de la Ley vasca de Sostenibilidad de ese ámbito. Se trata de una normativa –en vigor desde 2019– que exige que todas las instituciones públicas mejoren sus indicadores de ‘energía limpia’ en el periodo hasta el año 2030.

Esos 100 millones irán dedicados a «actuaciones de los municipios en sus edificios e instalaciones municipales, por ejemplo, aislamiento en ventanas, instalar placas fotovoltaicas, colocar enchufes para vehículos eléctricos, renovar el alumbrado municipal o incluso el parque móvil», ha detallado Tapia. De su lado, el má-

ximo responsable de Eudel, Gorka Urtaran, ha destacado que «nos sentimos satisfechos porque las líneas de trabajo del Gobierno Vasco encajan perfectamente con nuestras prioridades. La entidad –ha subrayado– recoge el guante de la colaboración institucional para hacer unos pueblos y ciudades vascas con mayor bienestar social, competitivas en la nueva economía verde y sostenibles medioambientalmente. Trabajaremos para engrasar el canal de colaboración y facilitar que ésta llegue hasta el municipio más pequeño.

El Gobierno ha destacado que a este plan se suman otras iniciativas con subvenciones para la reactivación económica en municipios de entorno rural y litoral, como Erein, Leader e Itsaspen, con el objetivo de posibilitar un mayor equilibrio territorial y hacer que los núcleos más pequeños se mantengan atractivos también para trabajar, además de para residir.

ERMUA

## La biblioteca ofrece material temático sobre el 8 de Marzo

K. ITURRIAGAGOITIA

ERMUA. Con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, la biblioteca ha adquirido nuevos títulos sobre feminismo y género que están disponibles para llevar en préstamo.

Estas novedades bibliográficas, junto con las adquiridas en fechas recientes por el Departamento de Igualdad, se muestran en una exposición temática en la biblioteca que se mantendrá hasta el próximo día 14 de este marzo. A partir de esta fecha y hasta finales de mes la Casa de la Mujer acogerá y exhibirá dicha recopilación de materiales.

Cabe recordar que la Casa de la Mujer dispone de una biblioteca que cuenta con cerca de 450 títulos especializados en temática de género e igualdad. Sus materiales, aunque físicamente están en la Casa de la Mujer, forman parte del catálogo de la Biblioteca municipal y para conocerlos se puede acceder desde Liburubila, el buscador



Diferentes materiales.

de recursos culturales que permite consultar y acceder a miles de materiales: libros, películas, documentos, e-books... seleccionados por las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi.

En la misma se recogen páginas, títulos de libros disponibles en la Biblioteca o en la Red de Lectura Pública de Euskadi así como títulos de audiovisuales recomendados relacionados con la temática de mujer y género desde diferentes ámbitos.

Kultura izan da pandemiak bete-betean jo duen sektore nagusietako bat. Osasun neurriek baldintzatuta, kudeaketa publikoa duten guneek eutsi diote batik bat programazio kulturalari.

# Kultura, estu baina aurrera



**Ermuko antzokia.** Maria Castro  
*La Coartada* antzezlanean,  
otsailaren 19an. **ERMUKO ANTZOKIA**

## Peru Azpillaga Bilbo

**U**rtea beteko da laster pandemiak Euskal Herria osasun larrialdi egoeran jarri eta egunerokotasuna goitik behera eraldatu zuenetik. COVID-19ak gizartean izandako eragina bizitzako esparru guztietan nabaritu da; unean uneko osasun neurriek bizimodua eraldatu dute. Orain, bai. Orain, ez. Orain, bai, baina era honetan. Orain, era horretan baino hobeto lehenagokoa. Orain, dena. Orain, ezer ez. Eten-gabeko aldaketa horien artean, bada bete-betean kaltetua izan den sektore bat: kultura. Arteen munduak erabat baldintzatuta ikusi du bere jarduna azkeneko

urtean, eta horrek artistetatik harago doan oso eremu zabal bat utzi du kolokan. Esaterako, azken hilabeteetan kultur programazioak aurrera egin duen arren, kudeaketa publikoa duten aretoetan izan da, batik bat. Izan ere, kultura egitasmoak antolatzeke bete behar diren neurri bereziek estu eta larri utzi dute ohiko antzoki eta aretoen jarduna.

Zelan moldatu diren jakiteko, lau aretotako kideekin mintzatu da *Bizkaiko Hitza*: Ermua antzokiarekin, Igorreko Lasarte aretoarekin, Bilboko Bira kultur gunearekin eta Bermeoko kafe antzokiarekin. Ermukoak eta Igorrekoak kudeaketa publikoa daukate, eta nabarmendu dute pandemia aurretik zuten «antzeko» jardunari eutsi diotela aurtén, gainontzekoek ez bezala.



**Hasieran jende gutxiago etortzen zen, baina, neurrien seriotasuna ikusita, gero eta jende gehiago animatu da»**

**Patxi Lopez**  
Ermuko kultur teknikaria

«Irailean ekin genion berriz ere lanari, eta, geroztik, bi emaldi baino ez ditugu utzi behar izan bertan behera», azaldu du Patxi Lopez Ermuko Udaleko kultur teknikariak. Erantsi du pandemiaren ondorioz iazko martxoan haien jarduna eten ostean «nolabaiteko normaltasunari» eutsi diotela irailetik, edukiera eta ordutegia moldatuta. «Hasieran oso urduri geunden. Ekonomikoki kolpe latza jaso genuen, nahiz eta kudeaketa eta programazioa publikoa



**Beste formatu batzuk bultzatzen saiatu gara, intimoagoak; adibidez, bakarlari gehiago ekartzen ari gara»**

**Iart Gumuzio**  
Igorreko alkatea

izan, antzokiko langileak enpresa baten bidez daudelako azpikontratatuta», esan du. Hala ere, mantentzea lortu dutela dio, eta, batik bat, artistengan eta konpainiengan jarri nahi izan du arreta. «Haiek bai nabaritu dutela».

Aitortu du iraillean «urduritasunez beteta» abiatu zirela, berehalako etorkizuna «zalantzaz beterik» zegoelako. «Neurriak argitaratuz joan ahala, ziurtasun handiagoarekin ibili gara, unean unean moldatzen eta beste lasai-




**Egoera gogorra da, eta desmotibazioa sortzen du, baina jausten garen bakoitzean altxatzeko prest gaude oraindik»**

**Lurxo Egia**  
Bira kultur gunea

tasun batekin programatzen». Azpimarratu du neurri berriak kenduta «berdin» ari direla, eta, hasierako beldurrak gaindituta, herriak ere erantzun «paregabea» eman duela deritzo. «Hasieran jende gutxiago etortzen zen, baina, neurrien seriotasuna ikusi ostean, gero eta jende gehiago animatu da».

Antzera mintzatu da Iart Gumuzio Igorreko alkatea ere. Teknikaria gaixotu egin zenez, hura ibili da herriko Lasarte are-



Bermeoko kafe antzokia. Ezin izan du pandemia aurreko jarduna berreskuratu. BERMEOKO KAFE ANTZOKIA



Meri, Mari eta Lari antzerkia, Igorreko Lasarte aretoan, otsailaren 27an. LASARTE ARETOA



Bilboko Erronda kaleko Bira kulturgunean egindako antzerki bat, pandemia baino lehen. BIRA KULTURGUNEA

**Hondamendia da guretzat; ez dugu amore emango, baina ez dakigu zenbat iraun ahalko dugun»**

**Patxi Erauzkin**

Bermeoko kafe antzokia

toko programazioa kudeatzen. Iazko urriaren 15ean funtzionamendu berriarekin zabaldu zuten aretoa: «Lehen 300 pertsona sartzen ziren; orain, aurrealmenta dagoenean, 148rentzako lekua dago, bat, bi eta hiruko blokeetan banatuz aretoa. Bestela, ehunentzako tokia dago, denak banaka jesarrita».

«Normaltasunez» aritu arren, programan aldaketa batzuk egin dituztela kontatu du: «Egoera normal batean jendetza handia

bilduko lukeen ekitaldirik ez eginen saiatu gara. Esate baterako, Pirritx eta Porrotx ekarrita normalean txiki geratuko balitz aretoa, orain are gehiago». Horregatik, beste formatu batzuk bultzatzen saiatu dira, aipatu duenez: «Intimoagoak: adibidez, bakar-lari gehiago ekartzen ari gara, eta oso erantzun ona izaten ari gara».

Publikoari lotuta, nabarmendu du hasierako beldurra gaundituta erantzuna «oso ona» izaten ari direla. Horrekin batera, Gumuziok esan du herriak ixtearen «txanponaren bi aldeak» ezagutu dituztela: «Batetik, normalean herrira etortzen zen inguruko jendea ezin izan da etorri. Baina, bestetik, herritar askok haien ohiturak aldatu dituzte, eta gehiago parte hartzen dute kultur egitasmoetan».

Oso bestelakoa da Biraren eta Bermeoko kafe antzokiaren egoera. Haien artean antz handirik ez duten proiektuak badira ere, kudeaketa publikotik kanpo dauden ekimenak dira biak. Ostalaritzaren egoerari «oso lotuta» daude, eta egoera ekonomiko «zaila» pasatzen ari direla diote.

### Txanponaren beste aldea

Bilbon orain dela pare bat urte euskarazko kultura bultzatzeko sortutako proiektu herritarra da Bira kulturgunea. Geroztik, gaueko giroa eta kultur eskaintza zabalduz, eta bigarren horren antolakuntzan buru-belarri ibili da hasieratik Lutxo Egia idazlea. Kultur programatzaileraren hitzetan, «kulturazaleztat» jo du bere burua. Nabarmendu duenez, iaz pandemia

hasi eta hilabete batzuetara, egoera aztertu eta erabaki zuten gabezia ekonomikoen gainera berri ere kultura eskaintzeko apustua egin behar zutela.

Egiak ohartarazi duenez, bazekiten egoerak «hondoratu» egingo zituela ekonomikoki, gauak ematen dielako proiektua mantentzeko dirua. «Egun, proiektua oso gaizki dago ekonomikoki, baina, hala ere, aurrera egitea erabaki dugu», erantsi du. «Bilbon, administratibotik harago, euskarazko proposamenei lekua egiten dieten tokia itxita daude, eta, era berean, toki publikoetan gauzak programatzen ari dira; hortaz, guk zergatik ez?», egin du gogoeta Birako kideak.

«Ekonomia kontra badugu ere, aurrera egingo dugu programazioarekin, eta konponbideak

bilatuko ditugu behar denean», zehaztu du. Hori dela eta, lanean hasi ziren auzoari eta hiriari egiten zioten eskaintza berreskuratu eta artistei plaza bat eskaintzeko: «Txikia eta baldintza bereziki, itxuraldatuta, baina plaza bat». Gogorarazi du Bira euskarazko sorkuntza bultzatzeko sortu zutela, eta hori gero eta murriztagoa dela deritzo: «Diputazioak programatzen du, udalak ere bai... Baina denok dakigu zer programatzen den, edo, hobeto esanda, zer geratzen den kanpoan. Gu horretarako gaude: nahi duen guztiari tokia egiteko».

Esan du oraingoz oso erantzun ona izaten ari direla, eta programazio kulturala finantzatzeko *Birakide* izeneko kanpaina ere jarri dute martxan. «Egoera honek bere alde onak ere izan ditu, ikusi dugulako orain arte proiektura hurbildu ez zen jendea gerturatzeko eta babesa ematen ari zaigula». Kontrako aldean, ostalaritzari oso lotuta daudela gogorarazi du: «Bitan itxi behar izan dugu, eta antolatuta genuen guztia bertan behera utzi. Saiatu gara barra itxita programatzen, baina ez digute utzi. Egoera gogorra da, eta desmotibazioa sortzen du, baina jausten garen bakoitzean altxatzeko prest gaude oraindik».

Latzagoa da Bermeoko kafe antzokiaren egoera. Bizkaiko beste antzoki handietan bezala, osasun neurriek ez diete irekitzeko aukerarik ematen; haien proiektuaren aniztasuna eta tamaina kontuan izanik, ez zaielako errentagarria egiten. Patxi Erauzkin antzokiko kideak dio zaila dela egoera: «Kontzertuak bertan behera utzi ditugu; moldatu gara gauzaren bat egiteko, oso formatu txikian, edukiera oso mugatuta dugulako eta ordutegiak asko murrizten dutelako gure jarduna. Egin ditugu pare bat gauza, baina ikusi dugu horrela aritzea ez dela errentagarria guretzat».

Jatetxea, gaua, kontzertuak... eskaintza zabala zeukan Bermeoko antzokiak. 700 lagunentzako lekua izatetik 80rentzako tokia izatera igaro dira orain, eta langile asko ditu. «Zenbaki horiekin, gastuak sarrerak baino handiagoak dira; diru laguntzarik gabe ezinezkoa da». Gainera, Erauzkinek salatu du erabakiak hartzen dituztenek ez dituztela kontuan hartu: «Inork ez digu ezer galde-tu, eta ez gaituzte aintzat hartu». Esan du ez duela argirik ikusten: «Hondamendia da guretzat. Ahal dugun bitartean eutsiko diogu; ez dugu amore emango, baina ez dakigu zenbat iraun ahalko dugun».